

2022ko laugarren hiruhilekoan, esportazioen prezioak % 8,6 igo ziren

Inportazioek % 8,3ko igoera izan zuten prezioetan

2022ko laugarren hiruhilekoan, esportazioen prezioak % 8,6 igo dira 2022ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera. Alderaketa aurreko urteko hiruhileko berarekin egiten badugu, 2021eko laugarrenarekin alegia, % 7,2ko gorakada izan da.

Inportazioen prezioek norabide berari jarraitzen diote: % 8,3 igo dira hiruhileko batetik bestera, eta % 10,0 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Esportazio energetikoen prezioak % 4,6 igo ziren aurreko hiruhilekoaren aldean, eta ez-energetikoenak % 8,6. Aurreko urtearen aldean, ondasun energetikoen prezioak % 3,9 igo dira, eta ez-energetikoenak % 6,7.

Inportazioen kasuan, produktu energetikoen prezioen indizea % 7,1 hazi zen, hiruhileko arteko tasan, eta ez-energetikoenak % 9,1. Urte arteko alderaketan, prezio energetikoek nabarmen egin dute aurrera, % 26,3, eta ez-energetikoen kasuan, berriz, % 6,5ekoa izan da igoera.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2022/IV

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	8,6	7,2	8,3	10,0
Energiazko gaiak	4,6	3,9	7,1	26,3
Energiazkoak ez diren gaiak	8,6	6,7	9,1	6,5
Kontsumo-ondasunak	7,6	11,2	6,9	-3,5
Kapital-ondasunak	7,1	5,4	5,1	4,4
Bitarteko ondasunak	9,3	6,5	8,7	11,9

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hiri beraren aldean

Data 2023ko Marboaren 31a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioen indizeak-UBI

Ondasunen **helburu ekonomikoaren** araberako sailkapenari jarraituz, esportazioen prezioak igo egin dira hiru sektoreetan: Bitarteko ondasunak % 9,3 hazi dira, Kontsumo-ondasunak % 7,6 eta Kapital-ondasunak % 7,1. Era berean, aurreko urtearen aldean, Kontsumo-ondasunen (% 11,2), Bitarteko ondasunen (% 6,5) eta Kapital-ondasunen (% 5,4) esportazioen prezioek gora egin dute.

Arreta inportazioetan jarrita, ikusten da ezen, 2022ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, Kontsumo-ondasunek % 6,9ko igoera izan dutela, baina urte arteko alderaketan sektore bakarra da zeinetan prezioak jaitsi diren, % 3,5 zehazki. Bestalde, beste bi ondasun motak, Bitarteko ondasunak eta Kapital-ondasunak, % 8,7 eta % 5,1 igo dira, hurrenez hurren, aurreko hiruhilekoaren aldean, eta % 11,9 eta % 4,4, hurrenez hurren, aurreko urtearekiko.

Esportazioek xede dituzten **eremu ekonomikoak** kontuan harturik, prezioak igo egin ziren 2022ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta eremu guztietan. ELGAn % 9,1 igo dira, EB-28an eta Euro eremuan % 7,9 eta % 7,4, hurrenez hurren, eta Munduko gainerakoan % 6,4. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, joera errepikatu egin da: prezioek igoera handiak izan dituzte eremu ekonomiko guztietan, eta nabarmentzekoak dira ELGA (% 7,4) eta Munduko gainerakoa (% 6,5); gainerako eremuak atzetik daude, tarte txikiarekin; hala, EB-28ak % 6,0ko hazkunde-tasa izan du, eta Euro eremuak % 5,4koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2022/IV

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	8,6	7,2	8,3	10,0
Euro eremua	7,4	5,4	6,8	7,5
EB-28	7,9	6,0	4,9	5,2
ELGE	9,1	7,4	6,1	8,3
Munduko besteak	6,4	6,5	13,3	13,0

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2023ko Martxoaren 31a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioei doakienez, eremu geografiko guztiek prezio-igoerak izan dituzte aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta igoera horiek Munduko gainerakoan nabarmendu dira (% 13,3). Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, tasak positiboak dira eremu ekonomiko guztietan ere, eta berriz ere Munduko gainerakoa (% 13,0) eta ELGA (% 8,3) aise nabarmendu dira.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehigorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62